BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5907

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 22koa, Osasuneko sailburuordearena, zeinen bidez ematen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta hiesaren arloan lanean diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako laguntzak.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko 3947 Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta hiesaren arloan lanean diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako laguntzetarako deia egiten zen. Agindu horretan xedatzen zen laguntza horiek Osasuneko sailburuordearen ebazpen bidez emango zirela, horretarako Osasun eta Kontsumoko sailburuak izendatutako balioespen-batzordeak egindako proposamena kontuan hartuta.

Batzorde horrek 2011ko urriaren 14an egin du bilera, eta han egindako proposamena kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Taula honetan ageri diren elkarteei diru-laguntza hauek ematea:

Espediente-kodea	Erakundea	Zenbatekoa
2011-X31B_SID-01-016-P	Comisión Ciudadana Anti Sida de Álava	30.000 €
2011-X31B_SID-48-013-P	Comisión Ciudadana Anti Sida de Bizkaia	125.000 €
2011-X31B_SID-20-002-P	Asociación Ciudadana Anti Sida de Gipuzkoa	27.800 €
2011-X31B_SID-48-005-P	Asociación Ciudadana de Lucha contra el Sida y Autoapoyo entre los Afectados T4	56.500 €
2011-X31B_SID-48-012-P	Caritas Bizkaia-Centro de Noche Hontza	8.200 €
2011-X31B_SID-48-017-P	Médicos del Mundo	15.050 €
2011-X31B_SID-01-010-P	Gizarterako	2.600 €
2011-X31B_SID-48-001-P	Askabide	6.000 €
2011-X31B_SID-20-003-P	Arrats-Centro Aukera	13.000 €
2011-X31B_SID-20-0008-P	Ehgam-Gipuzkoa	5.000 €
2011-X31B_SID-48-007-P	Aldarte	5.250
2011-X31B_SID-20-009-P	Gehitu	34.700 €
2011-X31B_SID-48-011-P	Hegoak Alde	3.600 €
2011-X31B_SID-48-014-P	TXO HIESA (Personas con VIH y su Entorno / Comarca)	6.800 €
2011-X31B_SID-48-006-P	Itxarobide	5.250 €
2011-X31B_SID-20-004-P	Asociación Anti Sida de Oiartzun Harri Beltza	5.250 €
	Total	350.000 €

Bigarrena.– Ondoren aipatzen diren elkarteei laguntzarik ez ematea, aurkeztu dituzten proiektuak ez datozelako bat deialdiaren xedearekin, edo aurkeztutako proiektuek ez dutelako aginduaren 12. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu.

Espediente-kodea	Erakundea
2011-X31B_SID-48-018-P-	Zubietxe
2011-X31B_SID-48-019-P-	Etorkintza
2011-X31B_SID-20-015-P	Lahia-Nahia Sexologia Elkartea

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, beraren kontra, interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasun eta Kontsumoko sailburuari, ebazpena EHAAn argitaratu eta hilabeteko epean, betiere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak moldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 22a.

Osasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA FERNÁNDEZ DÍAZ.